	www.puntabegonagetxo.eus	

Irisgarritasuna / Accesibilidad:
Ez da irisgarria mugikortasun urrikoentzat - No accesible con movilidad reducida
Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak - Plazas limitadas

PUNTA BEGOÑA, HISTORIAREN LEKUKO EROSTEZINA

Bisita gidatua

Punta Begoña galeriak Howard Hughes bizkaitarra izan zen Horacio Etxebarrietaren eta Ricardo Bastida arkitektoaren arteko bilera zoragarri baten emaitza dira; bi-biek Europako arkitektura modernoaren ikurretako bat eraiki zuten gure historiako funtsezko leku baten gainean.

Bisitak bilera haren sekretuak erakutsiko dizkigu, «gertakarien lekuan» bertan, ikus-entzunezko teknologia berrienak eta birtualenak erabiliz.

PUNTA BEGOÑA, TESTIGO INSOBORNABLE DE LA HISTORIA

Visita guiada

Las Galerías Punta Begoña son el resultado de un mágico encuentro entre Horacio Echevarrieta, el Howard Hughes bizkaino, y el arquitecto Ricardo Bastida, para erigir un símbolo de la moderna arquitectura europea sobre un enclave esencial en nuestra historia.

La visita nos descubrirá los secretos de aquel encuentro, en el "lugar de los hechos", utilizando las más novedosas tecnologías audiovisuales y virtuales.

GETXO

Euskara - gaztelania	Euskera - castellano
Punta Begoña galeriak, Ereagako pasalekuan	Galerías Punta Begoña, Paseo de Ereaga
Urriak 19, igandea, 17:00etatik 18:00etara	19 de octubre, domingo, de 17:00 a 18:00 h
Antolatzailea / Organización	Punta Begoña Fundazioa / Fundación Punta Begoña
	www.puntabegonagetxo.eus

Irisgarritasuna / Accesibilidad:
Ez da irisgarria mugikortasun urrikoentzat - No accesible con movilidad reducida
Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak - Plazas limitadas

HORACIO ETXEBARRIETAK HARRERA EGINGO DIZU PUNTA BEGOÑAN

Bisita antzeztua

Aditu ospetsuen aburuz, Horacio Etxebarrieta Estatu osoko historiako ekintzailerik garrantzitsuenetakoa izan zen. Punta Begoñatik, proiektu handiak, abenturak, negozioak, zimarkuak, garapen ekonomikoak eta gaur egunera arte iritsi diren aurrerapen sozialak pentsatu eta gauzatu zituen.

Etxebarrietaren eskutik, Gorka Mínguez aktore eta zuzendari ospetsuak interpretatuta eta berregite harrigarrien laguntzaz, etorkizuna diseinatzeko erabili zituen tokiak ezagutuko ditugu.

HORACIO ECHEVARRIETA RECIBE EN PUNTA BEGOÑA

Visita teatralizada

Prestigiosos expertos consideran a Horacio Echevarrieta como uno de los emprendedores más importantes de la historia en todo el Estado. Desde Punta Begoña diseñó y acometió grandes proyectos, aventuras, negocios, intrigas, desarrollos económicos y avances sociales que han llegado hasta nuestros días. Recorreremos de su mano, a través de la interpretación del prestigioso actor y director Gorka Mínguez, y con la ayuda de sorprendentes recreaciones, los lugares desde los que diseñaba el futuro.

GETXO

Gaztelania	Castellano
Punta Begoña galeriak, Ereagako pasalekuan	Galerías Punta Begoña, Paseo de Ereaga
Urriak 3, 10, 17, 24 eta 31, 10:00etatik 13:00etara	3, 10, 17, 24, 31 de octubre, de 10:00 a 13:00 h
Antolatzailea / Organización	Punta Begoña Fundazioa - Fundación Punta Begoña
	www.puntabegonagetxo.eus

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak. Ez da irisgarria mugikortasun urrikoentzat - Plazas limitadas. No accesible con movilidad reducida

PUNTA BEGOÑA ZUZENEAN

Irratia eta ondarea

'Irratia eta Ondarea' zikloaren bigarren edizioa

Urrian, Punta Begoña irratiz eta ondarez beteko da, zuzen-zuzenean eta gizarte osoarentzako eredu irekia eskainita. Aurten, ondare arkitektonikoaren eta ondare horrek gure bizitzetan daukan presentziaren askotariko proposamen atsegina landuko da. Aurrez aurre, uhinen eta sareen bidez, Punta Begoñatik mundura, jarduerara milaka pertsona berriro erakartzeko asmoz.

PUNTA BEGOÑA EN VIVO Y EN DIRECTO

Radio y patrimonio

Segunda edición del ciclo de Radio y Patrimonio.

A lo largo del mes de octubre Punta Begoña se llena de Radio y Patrimonio, en vivo y en directo, y en modelo abierto para toda la sociedad. Este año, con un planteamiento diverso y ameno del patrimonio arquitectónico y su presencia en nuestras vidas. Presencialmente, a través de las ondas y redes, desde Punta Begoña al mundo, y con la intención de volver a implicar a decenas de miles de personas en la actividad.

GETXO

	Euskara	Euskera
	Bizkaia Zubiko plaza, Areeta	Plaza Puente Bizkaia, Las Arenas
	Urriak 29, asteazkena, 18:00etatik 20:00etara	29 de octubre, miércoles, de 18:00 a 20:00 h
Antolatzailea Organización	Getxoko Udala - Ayuntamiento de Getxo	
	627899320; getxo.toponimia@gmail.com	

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak - Plazas limitadas

AREETA

Ibilbide gidatua

Areetan, harea zena harri bihurtu zen; pinudiak etxe; errekak lekuz aldatu ziren, itsasoa lekuz aldatu zen, hondartza desagertu egin zen, basamortua bizileku bilakatu zen, eta lur idorra emankor.

Ibaizabal zeharkatzeko txalupa transbordadore-zubia da gaur egun, Gizateriaren Ondarea. Zirgarien izerdia itsasontzi handien motor indartsu bihurtu da, eta Portugaleterako bide zaharra Areetako jauregi eder ugari.

LAS ARENAS

Itinerario guiado

En Las Arenas, lo que era arena se convirtió en piedra; los pinares en casas; los arroyos se movieron de sitio, el mar cambió de sitio, la playa desapareció, el desierto en morada, la tierra árida en riqueza.

La barca de paso del Ibaizabal es hoy un transbordador, Patrimonio de la Humanidad. El sudor de las sirgueras se ha convertido en el fuerte motor de los grandes barcos y el viejo camino a Portugalete en los bellos palacios de Las Arenas.

GETXO

	Euskara	Euskera
	Karmengo eliza	Iglesia del Carmen
	Urriak 14, asteartea, 18:00etatik 20:00etara	14 de octubre, martes, de 18:00 a 20:00 h
Antolatzailea Organización	Getxoko Udala -Ayuntamiento de Getxo	
	627899320; getxo.toponimia@gmail.com	

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak - Plazas limitadas

NEGURI

Ibilbide gidatua

Neguriren sorreran, trena dago, bai eta XIX. mendeko desamortizazioak, Ingalaterratik ekarritako higienismoa eta ostatuen erosotasunari buruzko ideiak, Karlismoaren osteko euskarari buruzko ikuspegia, burdinaren inguruko ekonomiak sorturiko gizarte-klase berri baten nahiak eta beste hainbat gauza ere.

Neguri deritzon auzoa ideia horien guztien isla da, eta bertako etxeetan, gaur egun, horrela pentsatzen zuten pertsonen aztarna ugari aurki daitezke.

NEGURI

Itinerario guiado

En la fundación de Neguri está el tren, pero también las desamortizaciones del siglo XIX, el higienismo traído de Inglaterra y las ideas sobre el confort de los alojamientos, la visión sobre el euskera después del Carlismo, los deseos de una nueva clase social forjada por la economía del hierro y muchas cosas más.

El barrio de Neguri es reflejo de todas estas ideas y en sus casas, hoy en día, se pueden encontrar las huellas de personas que pensaban así.

GETXO

	Euskara	Euskera
	San Nikolas plaza, Algorta	Plaza San Nicolás, Algorta
	Urriak 22, asteazkena, 18:00etatik 20:00etara	22 de octubre, miércoles, de 18:00 a 20:00 h
Antolatzailea Organización	Getxoko Udala - Ayuntamiento de Getxo	
	627899320; getxo.toponimia@gmail.com	

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak - Plazas limitadas

PORTU ZAHARRA

Ibilbide gidatua

Pertsona batzuentzat, arrantzaleen portu zaharra da; beste batzuentzat, aldiz, Algortako jatorrizko auzoa; askorentzat, Abrara begira dagoen balkoia; beste batzuentzat, Getxo osoa irudikatzeko erabiltzen den postal tradizionala: aisialdiko gune magikoa, arratsalde ederren lekuko...

Ibilbide horretan, Algortako goialdetik Algortako kostalderaino joango gara. Getxoko aniztasunaren adibidea dugu Portu Zaharra, marinelen etxe dotorez eta kalexka estuz hornitua, begiak bete kolore.

PUERTO VIEJO

Itinerario guiado

Para algunas personas, el antiguo puerto de pescadores; para otras, el barrio originario de Algorta; para muchos, el balcón con vistas al Abra; para otros, la tradicional postal con la que se representa todo Getxo: el mágico espacio festivo, testigo de las bellas tardes...

En esta ruta recorreremos desde la parte alta marinera de Algorta hasta su zona costera. Ejemplo de la diversidad de Getxo, el Puerto Viejo con sus elegantes casas de marineros, sus callejuelas estrechas y sus ojos llenos de color.

GETXO

	Euskara	Euskera
	Andra Mari elizaren ataria	Atrio de la iglesia de Andra Mari
	Urriak 9, osteguna, 18:00etatik 19:30era	9 de octubre, jueves, de 18:00 a 19:30 h
Antolatzailea Organización	Getxoko Udala - Ayuntamiento de Getxo	
	627899320; getxo.toponimia@gmail.com	

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak - Plazas limitadas

GETXOKO ANDRA MARIKO INGURUA

Ibilbide gidatua

Bideak lurrean marraztutako lerroak dira; Andra Mariko bideak, aldiz, getxoztarren bizimoduaren eta beharren marrak dira.

Elizaldeak bere sorrera darakutsa; Getxok egin duen bidearen hasiera da. Hango estrata eta bidexkek basora, hondartzara, arroketara edo itsaslabarrera eramango gaituzte, eta baserriek moldatu duten paisaia erakutsiko digute.

Getxo askotarikoa eta koloretsua da, nekazaria, arrantzalea eta industriala, hareharriz eta marmolez egina dago, eta Andra Mariren sehaska honetatik, leku guztietarako bideak abiatzen dira.

EL ENTORNO DE SANTA MARÍA DE GETXO

Itinerario guiado

Los caminos son líneas trazadas en el suelo; los caminos de Andra Mari son trazos de las formas de vida y necesidades de los getxotarras.

Elizaldea muestra su génesis; es el inicio del camino que ha recorrido Getxo. Sus estradas y senderos nos llevan al bosque, a la playa, a las rocas o al acantilado y muestran el paisaje que han creado los caseríos.

Getxo es variado y colorista, agricultor, pescador e industrial, está hecho de arenisca y mármol y desde esta cuna de Santa María parten caminos a todos los lugares.

ROMO AUZOKO ARKITEKTURA ONDAREA

Ibilbide gidatua

Romo nortasun soziologiko eta hiritar bereizia duen Getxoko auzoa da. Bi ezaugarri horiek auzoko herri-ondare arkitektonikoa zedarriztatu dute. Bertako kaleetan, besteak beste, Luis Arana, Angel Libano, Emiliano Amann eta Celestino Martinez arkitektoek diseinatutako lehen eraikinen aztarnak aurki ditzakegu.

Nolanahi ere, ondare arkitektonikoz haratago, Romo auzoa ondare historiko eta sozial aberatsaz jantzi da historian, auzoaren hazkundea bultzatu duten baldintza sozioekonomikoez elikatua.

PATRIMONIO ARQUITECTÓNICO EN EL BARRIO DE ROMO

Itinerario guiado

Romo es un barrio de Getxo con una diferenciada personalidad sociológica y urbana. Cuestiones ambas que han determinado su patrimonio popular arquitectónico. En sus calles encontramos vestigios de las primeras edificaciones o los edificios diseñados por los arquitectos Luis Arana , Ángel Líbano, Emiliano Amann y Celestino Martínez, entre otros.

En cualquier caso, y más allá del patrimonio arquitectónico, el barrio de Romo expresa en su historia un rico patrimonio histórico-social, nutrido de las condiciones socioeconómicas que han animado su crecimiento.

	Gaztelania	Castellano
	Santa Eugenia plaza	Plaza Santa Eugenia
	Urriak 18, larunbata, 11:00etatik 13:00etara	18 de octubre, sábado, de 11:00 a 13:00 h
Antolatzailea Organización	Zabalketa - Ibar Nagusien Etxea Elkartea	
	675008135; pilar@zabalketa.org	

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak - Plazas limitadas

GORDEXOLA

	Gaztelania	Castellano
	Molinar plazako kioskoa (udaletxearen aurrean)	Kiosko de la Plaza de Molinar (frente al Ayuntamiento)
	Urriak 11, larunbata, 11:00etatik 12:30era	11 de octubre, sábado, de 11:00 a 12:30 h
Antolatzailea Organización	Gordexolako Udala - Ayuntamiento de Gordexola	
	946799704 (9:00-12:00 h) / 946798061 (16:30-20:30 h)	

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak, erreserba egin behar da. Jarduera ez da egokia 16 urtetik beherakoentzat
Plazas limitadas, imprescindible reserva. No recomendada a menores de 16 años

INDIANOEN ETXEAK GORDEXOLAN: IRAGANA, ORAINA ETA ETORKIZUNA

Ibilbide gidatua

Itsasoz haraindian aberastu zirenek eraikitako etxe burgesen historia, moldeak erabilerak ezagutzera gonbidatuko gaitu Gordexolako Udalak. Herriko administrazio-gunea den Molinar inguruan ibilaldi laburra eginez, etxe horiek, haien egitura eta iraupena bermatzen duten berrerabileraren adibideak ezagutu ahalko ditugu.

LA CASA DE INDIANO EN GORDEXOLA: PASADO, PRESENTE Y FUTURO

Itinerario guiado

El ayuntamiento de Gordexola nos invita a conocer la historia, estilos y dedicación de la casa burguesa levantada por quienes se enriquecieron en ultramar. Un breve paseo por el entorno de Molinar, centro administrativo del pueblo, nos permitirá reconocer estos espacios, su articulación y los ejemplos de reutilización que garantizan su conservación.

GORDEXOLA

	Gaztelania	Castellano
	Molinarko San Joan elizaren ataria Molinar plaza	Pórtico de la Iglesia de San Juan de Molinar. Plaza de Molinar
	Urriak 19, igandea, 11:00etatik 12:30era	19 de octubre, domingo, de 11:00 a 12:30 h
Antolatzailea Organización	Gordexolako Udala - Ayuntamiento de Gordexola	
	946799704 (9:00-12:00 h) / 946798061 (16:30-20:30 h)	

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak, erreserba egin behar da. Jarduera ez da egokia 16 urtetik beherakoentzat
Plazas limitadas, imprescindible reserva. No recomendada a menores de 16 años

HILOBI ARKITEKTURA: KOMUNITATEAREN ONDARE MATERIAL ETA IMMATERIALA

Bisita gidatua

Hilerria komunitatearen adierazpen arkitektoniko eta kulturalaren atala da. Oraingo honetan, bisita gidatu xehe batek heriotza gordetzeko eta bertan dautzan gorpuzkien pertsonen bizitza omentzeko eraiki den ondarea erakutsiko digu. Esparruak, hirigintza-bilbeak, kaperak, panteoiek, hobiek edo kolunbarioek adierazten digute gizarteak heriotzarako igarobidea eta oroitzapena interpretatzeko moduaz, eta horrela islatu dute hilerrien garapenean XIX. mendearen hasieratik aurrera.

ARQUITECTURA FUNERARIA: PATRIMONIO MATERIAL E INMATERIAL DE LA COMUNIDAD

Visita guiada

El cementerio forma parte de la expresión arquitectónica y cultural de la comunidad. En esta ocasión, una detenida visita guiada nos acercará al patrimonio que se construye para cobijar la muerte y rendir homenaje a la vida de las personas cuyos restos acoge. Recinto, urbanismo, capilla, panteones, nichos o columbarios nos hablan de cómo la sociedad interpreta el tránsito y el recuerdo y lo plasma en el desarrollo de sus cementerios desde principios del siglo XIX.

GORLIZ

	Gaztelania	Castellano
	Sertutxena. Eloisa Artaza 1	Sertutxena. Eloisa Artaza 1
	Urriak 9, osteguna, 19:00etatik 20:00etara	9 de octubre, jueves, de 19:00 a 20:00 h
Antolatzailea Organización	Gorlizko Udala	
	Gorlizko Turismo Bulegoa 946774348 / 688818876; info@visitgorliz.eus	

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak - Plazas limitadas

GORLIZKO GOTORLEKUAK ETA BABESLEKUAK. AHAZTUTAKO ARKITEKTURA

Xabier Armendarizen hitzaldia

Xabier Armendariz historialariak Gorlizko iragan militarra aztertzera gonbidatuko gaitu hango gotorleku ahaztuen bidez. Hilaren 9ko hitzaldian, Askorriagako eta Arriko Arritxuko gotorlekuen historia aztertuko dugu, hau da, beste sasoi batean, kostaldea defendatu zuten eraikuntza estrategikoena. Herriko defentsa-arkitekturaren eta historian izan duen eginkizunaren ibilbidea. Hilaren 12an, toki horiek bertatik bertara ezagutzeko ibilbide gidatua egingo dugu.

FORTIFICACIONES Y DEFENSAS DE GORLIZ. UNA ARQUITECTURA OLVIDADA

Conferencia por Xabier Armendariz

El historiador Xabier Armendariz nos invita a redescubrir el pasado militar de Gorliz a través de sus fortificaciones olvidadas. En la charla del día 9 exploraremos la historia de los fortines de Askorriaga y Arriko Arritxu, construcciones estratégicas que en su día defendieron la costa. Un recorrido por la arquitectura defensiva de la localidad y su papel en la historia. Y el día 12 tendremos la oportunidad de realizar una ruta guiada para conocer los lugares in situ.

GORLIZ

	Gaztelania	Castellano
	Sertutxena. Eloisa Artaza 1	Sertutxena. Eloisa Artaza 1
	Urriak 12, igandea, 10:00etatik 13:00etara	12 de octubre, domingo, de 10:00 a 13:00 h
Antolatzailea Organización	Gorlizko Udala	
	Gorlizko Turismo Bulegoa 946774348 / 688818876; info@visitgorliz.eus	

Irisgarritasuna / Accesibilidad:
Jarduera ez da irisgarria mugikortasun urriko pertsonentzat
No accesible para personas con movilidad reducida

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak - Plazas limitadas

GORLIZKO GOTORLEKUAK ETA BABESLEKUAK. AHAZTUTAKO ARKITEKTURA

Ibilbide gidatua

Xabier Armendariz historialariak Gorlizko iragan militarra aztertzera gonbidatuko gaitu hango gotorleku ahaztuen bidez. Hilaren 9ko hitzaldian, Askorriagako eta Arriko Arritxuko gotorlekuen historia aztertuko dugu, hau da, beste sasoi batean, kostaldea defendatu zuten eraikuntza estrategikoena. Herriko defentsa-arkitekturaren eta historian izan duen eginkizunaren ibilbidea. Hilaren 12an, toki horiek bertatik bertara ezagutzeko ibilbide gidatua egingo dugu.

FORTIFICACIONES Y DEFENSAS DE GORLIZ. UNA ARQUITECTURA OLVIDADA

Itinerario guiado

El historiador Xabier Armendariz nos invita a redescubrir el pasado militar de Gorliz a través de sus fortificaciones olvidadas. En la charla del día 9, exploraremos la historia de los fortines de Askorriaga y Arriko Arritxu, construcciones estratégicas que en su día defendieron la costa. Un recorrido por la arquitectura defensiva de la localidad y su papel en la historia. Y el día 12 tendremos la oportunidad de realizar una ruta guiada para conocer los lugares in situ.

IBARRANGELU

EUSKAL ARTEAREN KAPERA SIXTINOA

Bisita gidatua

Ibarrangeluko San Andres elizaren barruan benetako artisau-artelan bat dago, egur polikromatuzko ganga zoragarria, «Euskal Artearen Kapera Sixtinotzat» hartzen dena. Bere egitura finak, tenpluetako harriaren imitazio sotilak eta bere pintura bikainen xehetasunek liluratuko zaituzte, tradizio erlijiosoa eta profanoa nahasten baitituzte. Begirada arretatsua eskatzen duen irudi-errepertorio aparta.

LA CAPILLA SIXTINA DEL ARTE VASCO

Visita guiada

La Iglesia de San Andrés de Ibarrangelu esconde en su interior una auténtica obra de arte artesanal, la maravillosa bóveda de madera policromada, considerada la «Capilla Sixtina del Arte Vasco». Te cautivarán su refinada estructura, la sutil imitación de la piedra de los templos y el detalle de sus magníficas pinturas, que entremezclan tradición religiosa y profana. Un extraordinario repertorio de imágenes que requiere una mirada atenta.

	Gaztelania	Castellano
	San Andrés Elizako elizpea	Pórtico de la Iglesia San Andrés
	Urriak 10, ostirala, 11:30etik 12:45era	10 de octubre, viernes, de 11:30 a 12:45 h
Antolatzailea Organización	Nueva Europa-Visit Urdaibai	
	634243762; visiturdaibai@nuevaeuropa.eus	

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak. Erreserba egin behar da - Plazas limitadas. Es necesario reserva

ISPASTER

ISPASTER: EUSKAL BASERRIAREN HERRIA

Ibilbide gidatua

Ispasterrek Euskal Herriko kultur ondarearen altxor itzela dauka; estilo arkitektoniko guztietako eta denboraldi guztietako baserriak ditu zutik udalerriak, ederki kontserbatuta gainera. Hala, landa-arkitektura tradizionalaren museo bizia da herria.

Anartz Ormaza (kultur ondareko espezialista arkitektoa) eta Guillermo Ruiz de Erentxun (aditua bideetan) gidari izanda, ibilbidea herri-bideetatik igaroko da, hainbat arkitektura-estilotako adibide ederrak diren baserriak ikusteko: estilo gotikoa, neoeuskalduna, errenazentista, barrokoa eta neoklasikoa.

ISPASTER: EL PUEBLO DEL CASERÍO VASCO

Itinerario guiado

Ispaster guarda un rico tesoro del patrimonio cultural. Dispone de caseríos bien conservados de todos los estilos arquitectónicos, un patrimonio cultural construido de enorme valor, un museo vivo de la arquitectura rural.

La ruta guiada por Anartz Ormaza (arquitecta especialista en patrimonio cultural) y Guillermo Ruiz de Erentxun (experto en caminos) discurrirá por los herribideak y nos acercará a una selección de estos caseríos, bellos ejemplos de arquitecturas que abarcan desde el estilo gótico hasta el neovasco, pasando por el renacimiento, barroco y neoclásico.

	Euskara - gaztelania	Euskera - castellano
	Herriko plaza	Herriko plaza
	Urriak 25, larunbata, 10:00etatik 14:00etara	25 de octubre, sábado, de 10:00 a 14:00 h
Antolatzailea Organización	Ispasterko Udala - Ayuntamiento de Ispaster	
	ispartekoudala@gmail.com	

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
10 km-ko ibilbidea. 10 geldialdi inguru, hautatutako baserrien aurrean; 4 orduko ibilbidea; bidaldiak ez du zailtasunik, eta Ispasterko Herriko Plazan hasi eta amaituko da. Plaza mugatuak
Recorrido de 10 km con 10 paradas interpretativas ante los caseríos seleccionados. 4 horas de caminata sin dificultad con inicio y final en la plaza de Ispaster. Plazas limitadas

HILERRIAREN ARKITEKTURA

Ibilbide gidatua

Historian zehar, heriotzak, gizakion sinesmen, ohitura eta bizimoduetan eragin zuzena izan du eta hori hileta ohituretan eta arkitekturan ikusi daiteke. Euskal Herriko hileta ohituretan ere bilakaera nabarmena izan da historian zehar. Hitzaldi honetan hileta ohiturek eta hileta arkitekturak izan duen bilakaera ezagutuko dugu Iurretako hilerrian izan duen bilakaera ere aztertzearekin batera.

ARQUITECTURA DEL CEMENTERIO

Itinerario guiado

A lo largo de la historia la muerte ha influido directamente en las creencias, costumbres y formas de vida de los seres humanos, y eso se puede ver en los hábitos funerarios y en la arquitectura. La evolución de las costumbres funerarias en Euskal Herria también ha sido notable a lo largo de la historia. En esta actividad conoceremos la evolución de los hábitos funerarios y la arquitectura funeraria, así como su evolución en el cementerio de Iurreta.

	Euskara	Euskera
	Aita San Miguel plaza	Plaza Aita San Miguel
	Urriak 18, goizeko 11:00etatik 12:30etara	18 de octubre, sábado, de 11:00 a 12:30 h
Antolatzailea Organización	Iurretako Udala - Ayuntamiento de Iurreta Gerediaga Elkartea	
	946818066; ejardunaldiak@gmail.com	
	www.ondareabizkaia.eus	

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas

KARRANTZA HARANA

	Gaztelania	Castellano
	Karrantzako Turismo Bulegoa	Oficina de Turismo de Karrantza
	Urriak 11, larunbata, 11:00etatik 13:00etara	11 de octubre, sábado, de 11:00 a 13:00 h
Antolatzailea Organización	Karrantzako Turismoa - Turismo Karrantza	
	946806928 / 696446301; turismokarrantza@gmail.com	

Irisgarritasuna / Accesibilidad:
Irisgarritasun fisiko eta kognitibo partziala - Accesibilidad física y cognitiva parcial

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Leku-kopuru mugatua. Norberaren ibilgailua behar da - Plazas limitadas. Necesario vehículo propio

ENKARTERRIKO BASERRIAK: EUSKAL BASERRIAREN ETA MENDIKO ETXEAREN ARTEKO ERDIBIDEAN

Ibilbide gidatua Miguel Sabino Diaz-en eskutik

«Turtziozko baserria» izenez ere ezaguna den eraikuntza-tipologia honek ukitu bereizgarria eta oso berezkoa ematen dio Bizkaiko landa-arkitekturari; XVII. mendetik aurrera garatu zen Enkarterriko mendebaldeko haranetan (Artzentales, Karrantza eta Turtzioz) eta Kantabriako Guriezo eta Villaverde haranetan.

Baserriko gazta horniturikо hamaiketako eskainiko da bertaratzen diren guztientzat.

CASERÍO ENCARTADO: A MEDIO CAMINO ENTRE EL BASERRI VASCO Y LA CASA MONTAÑESA

Itinerario guiado de la mano de Miguel Sabino Díaz

También conocido como "Caserio Trucense", esta tipología constructiva proporciona un toque diferencial y muy propio en la arquitectura rural de Bizkaia y se desarrolló a partir del siglo XVII en los valles occidentales de Las Encartaciones (Arcentales, Karrantza y Trucíos) y en los cántabros de Guriezo y Villaverde.

Se ofrecerá un hamaiketako con queso para todos los asistentes.

KARRANTZA HARANA

	Gaztelania	Castellano
	Karrantzako Turismo Bulegoa	Oficina de Turismo de Karrantza
	Urriak 25, larunbata, 11:00etatik 12:30era	25 de octubre, sábado, de 11:00 a 12:30 h
Antolatzailea Organización	Turismo Karrantza	
	946806928 / 696446301; turismokarrantza@gmail.com	

Irisgarritasuna / Accesibilidad:
Irisgarritasun fisiko eta kognitibo partziala - Accesibilidad física y cognitiva parcial

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Leku-kopuru mugatua. Norberaren ibilgailua behar da - Plazas limitadas. Necesario vehículo propio

ABERASTASUNAREN ELIZA

Bisita gidatua

Juan Prieto de Haedo erabateko txirotasunetik eta bere jaioterriko Karrantzako lurrak lantzetik, parekorik gabeko aberastasuna lotzera igaro zen, eta XVIII. mendeko Espainiako aberastasunik handienetako bat izatea lortu zuen gizona izatera iritsi zen. Santecilla auzoko Santa Zezilia eliza, Bizkaiko Ondare Historiko izendatua, pertsonaia horren familiaren etxearen ondoan dagoena, berak finantzatu zuen.

Santa Zezilia, XVIII. mendeko eliza barroko honek Karrantzako erretaula berezienetako bat gordetzeaz gain, baita artearen historialarien arabera, gaur egun Euskal Herriko burdinezko sarerik onenetakoa bat ezkutatzen du ere.

LA IGLESIA DE LA FORTUNA

Visita guiada

Juan Prieto de Haedo pasó de la más absoluta pobreza y de labrar tierras en su Carranza natal a amasar una riqueza sin parangón, llegando a ser el hombre que logró atesorar una de las mayores fortunas en la España del siglo XVIII. La Iglesia de Santa Cecilia, en el barrio de Santecilla, declarada Patrimonio Histórico de Bizkaia, está situada junto a la casa familiar de este personaje y fue financiada por él.

Santa Cecilia, esta iglesia barroca del siglo XVIII, esconde uno de los retablos más singulares además de una reja de hierro que, según los historiadores del arte, hoy día está considerada como una de las mejores rejerías del País Vasco.

EHIZTARIAK, ARTISTAK ETA LURPEKO ESPAZIOAREN ARKITEKTOAK

Hitzaldia

Duela 22.000 eta 14.000 urte bitartean, gaur egungo Euskal Herria bidegurutze estrategikoa izan zen paleolito garaiko gizarteentzat. Madeleine aldiko bederatzi kobazulo aztertu ditugu teknologia digitala erabiliz, eta lau irudi multzo identifikatu ditugu teknikaren, kokapenaren eta funtzio sozialaren arabera. Ondorioa argia da: artea ez zen inprobisatua izan, baizik eta espazio sinboliko zaindu batean egindako adierazpen konplexu bat

CAZADORES, ARTISTAS Y ARQUITECTOS DEL ESPACIO SUBTERRÁNEO

Conferencia

Hace entre 22.000 y 14.000 años, el actual territorio de Euskal Herria fue un cruce clave para las comunidades paleolíticas. Analizando nueve cuevas decoradas del Magdaleniense con tecnología digital, hemos identificado cuatro tipos de conjuntos gráficos según su técnica, localización y posible función social. Todo apunta a una planificación previa: el arte rupestre no fue improvisado, sino una compleja forma de expresión simbólica en un espacio cuidadosamente construido.

	Gaztelania	Castellano
	Santimamiñeko harrera gunea	Recepción Santimamiñe
	Urriak 25, larunbata, 12:00etatik 13:00etara	25 de octubre, sábado, de 12:00 a 13:00 h
Antolatzailea Organización	Santimamiñe	
	944651657; santimamine@bizkaia.eus	

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak - Plazas limitadas

LANESTOSA

INDIANOEN ETXEAK ETA HIRIGUNE HISTORIKOA

Ibilbide gidatua

Lanestosa haran basotsu eta berde batean hedatzen da, mendien artean ahokatuta. Calera ibaiak zeharkatzen du herria. Gure lurraldeko udalerririk zaharrenetakoa da.

Lanestosako hirigune historikotik barrenako ibilbide gidatua egingo dugu. Azken bi mendeetako indianoen etxeak ezagutuko ditugu, hau da, Filipinetatik eta Ameriketatik aberastuta jaioterrira itzuli ziren etorkinek altxatutako eraikin handiak. Gaur egun arte iraun duen Erdi Aroko gune historikoa ere bisitatuko dugu.

CASAS DE INDIANOS Y CASCO HISTÓRICO

Itinerario guiado

Lanestosa se extiende en un valle boscoso y verde, encajonado entre montañas y surcado por el río Calera. Es uno de los municipios más antiguos de nuestro territorio.

Realizaremos un recorrido guiado por el casco histórico de Lanestosa. Conoceremos las Casas de los Indianos en los dos últimos siglos, grandes edificaciones construidas por los emigrantes que regresaron a su villa natal enriquecidos de Filipinas y América. También visitaremos el espacio histórico medieval que ha perdurado hasta nuestros días.

	Gaztelania	Castellano
	Lanestosako pilotalekuko aparkalekua	Parking del frontón de Lanestosa
	Urriak 25 eta 26, larunbata eta igandea, 11:30etik 13:30era	25 y 26 de octubre, sábado y domingo, de 11:30 a 13:30 h
Antolatzailea Organización	Lanestosako Udala - Historias de Lanestosa Kultura Elkartea - Ayuntamiento de Lanestosa - Asociación Cultural Historias de Lanestosa	
	607217424 / 946806116	

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak - Plazas limitadas

LAUKIZ

LAUKIZKO "BEHEKO ESKOLA" – 100 URTE

Bisita gidatua

Mentxaketa auzoko eskolak, "Beheko eskolak" 100 urte bete ditu.

Bizkaiko auzo-eskolak landa-eremuetako udalerrietan eraiki ziren, analfabetismoa murrizteko eta hezkuntza elebiduna ezartzeko.

Diego Basterra Berastegi arkitektoak proiektatu zuen eraikinaren eredua (bikoitza edo bakuna). Lehenengo auzo-eskolak 1921ean inauguratu ziren, Laukizkoa 73.a izan zen eta 1925eko irailaren 29an inauguratu zen.

Denboran atzera egingo dugu eta auzo-eskola honen hastapenak azalduko ditugu, gaur egun dabilen auzo-eskolarik zaharrena baita Bizkaian.

"BEHEKO ESKOLA" DE LAUKIZ – 100 AÑOS

Visita guiada

"Beheko eskola", la escuela situada en el barrio Mentxaketa, cumple 100 años.

Las escuelas de barriada en Bizkaia se construyeron en los municipios rurales con el objetivo de reducir el analfabetismo e instaurar una educación bilingüe.

Existía un edificio prototipo (doble o sencillo) proyectado por el arquitecto Diego Basterra y Berastegui. Las primeras se inauguraron en 1921, la de Laukiz fue la número 73 y se inauguró el 29 de septiembre de 1925.

Viajaremos a través del tiempo y explicaremos sus inicios hasta hoy en día, ya que es la escuela de barrio activa más antigua de Bizkaia.

	Euskara - gaztelania	Euskera - castellano
	Laukizko Beheko Eskola	Laukizko Beheko Eskola
	Urriak 11, larunbata, 11:00etatik 12:00etara	11 de octubre, sábado, de 11:00 a 12:00 h
Antolatzailea Organización	Laukizko Udala - Ayuntamiento de Laukiz	
	946151051; euskara@laukiz.eus	

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:

Plaza mugatuak - Plazas limitadas

LEIOA



MATERIA ETA MEMORIA: ZAHARBERRITZEA INGURUNE ARKITEKTONIKOAN

Bisita gidatua

Bisita honetan, arkitekturari lotutako obrak kontserbatu eta zaharberritzeko lana hurbiletik ezagutzeko aukera izango dugu. Marouflage deritzon teknika ezagutuko dugu, hau da, oihal gainean egindako margolan bat euskarri zurrunago batean ezartzea, espazioan integratzeko. Horrez gain, Ibarrolaren eta Oteitzaren erretaulen eta horma-lanen gaineko esku-hartzea eta Iruña kafetegiaren apainketa ikonikoa aztertuko ditugu. Arlo horretako adituen eskutik, lan horiek berreskuratzeko irizpideak, prozesuak eta erabakiak aztertuko ditugu, haien historia eta jatorrizko materialak errespetatuz.

MATERIA Y MEMORIA: LA RESTAURACIÓN EN EL ENTORNO ARQUITECTÓNICO

Visita guiada

En esta visita podremos conocer de cerca el trabajo de conservación-restauración de obras vinculadas a la arquitectura. Exploraremos la recuperación de marouflages, una técnica que consiste en fijar una pintura sobre tela en un soporte mural para su integración en el espacio, así como la intervención en retablos y obras murales de Ibarrola, Oteiza, y la icónica decoración del Café Iruña. Junto a especialistas en el campo, analizaremos los criterios, procesos y decisiones que han permitido recuperar estas obras respetando su historia y materiales originales.

	Euskara - gaztelania	Euskera - castellano
	Leioako campusa (EHU) Sarriena auzoa, z/g Jorge Oteitza plazako erlojua Arte Ederretako Fakultateko II. Eraikina (Areto Nagusiaren behealdea)	Campus de Leioa (UPV/EHU). Barrio Sarriena, s/n Reloj de la Plaza Jorge Oteiza. Edificio II de la Facultad de Bellas Artes (Bajos del Aula Magna)
	Urriak 23, osteguna, 17:00etatik 19:00etara	23 de octubre, jueves de 17:00 a 19:00 h.
Antolatzailea Organización	Kultura Ondasunen Kontserbazioa-Zaharberritzea Gradua - Grado de Conservación-Restauración de Bienes Culturales	
	Materiaymemoria2025@gmail.com	

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak - Plazas limitadas

LEKEITIO

	Euskara	Euskera
	Kultur Etxeko Azkue aretoa	Azkue aretoa de la Casa de Cultura
	Urriak 24, ostirala, 19:00etatik 20:00etara	24 de octubre, viernes, de 19:00 a 20:00 h
Antolatzailea Organización	Lekeitioko Udala - Ayuntamiento de Lekeitio	
	Sarrera librea aforoa bete arte - Entrada libre hasta completar aforo	

LEKEITIO ETA INGURUKO ONTZIGINTZAREN HISTORIA ZIZELKATUZ

Hitzaldia Aitor Leniz Atxabalen eskutik

Euskal ontzigintzaren jatorriaren inguruan auzi ugari daude baina, argi dagoena da Erdi Arotik aurrera behintzat, arrakasta handia bizi izan zuela Euskal Herrian. Hala eta guztiz ere, bere garapena ez da berdintsua izan portu guztietan, eta horregatik, ikertzeko orduan dauden zailtasunak aintzat izanda, Behe Erdi Arotik hasi eta Aro Garaikidera arteko Lekeitio eta inguruko ontzigintzan, ontzioletan eta jakina, langilerian oinarrituko dugu saio hau. Hizlaria: Aitor Leniz Atxabal.

TALLANDO LA HISTORIA DE LA CONSTRUCCIÓN NAVAL EN LEKEITIO Y SU ENTORNO

Conferencia por Aitor Leniz Atxabal

Existen muchas hipótesis sobre el origen de la construcción naval vasca, pero lo que está claro es que, al menos a partir de la Edad Media, tuvo un gran auge en Euskal Herria. Sin embargo, su desarrollo no ha sido el mismo en todos los puertos, por lo que, teniendo en cuenta las dificultades a la hora de la investigación, centraremos esta sesión en la construcción naval, los astilleros y, por supuesto, los trabajadores de Lekeitio, desde la Baja Edad Media hasta la Edad Contemporánea.

LEKEITIO

	Euskara	Euskera
	Mendieta ontziola. Santa Elena kalea z/g	Astilleros Mendieta. C/Santa Elena s/n
	Urriak 25, larunbata, 11:00etatik 12:00etara	25 de octubre, sábado, de 11:00 a 12:00 h
Antolatzailea Organización	Lekeitioko Udala - Ayuntamiento de Lekeitio	
	Izena eman beharko da Lekeitio700 webgunean - Inscripción en la web de Lekeitio700	

Irisgarritasuna / Accesibilidad:
Ez da oso ona - No muy buena

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak - Plazas limitadas

MENDIETA ONTZIOLA: ZAHARBERRITZE-PROZESUA

Bisita gidatua

1917an eraikitako egurrezko egituradun ontziola horretan, Mendieta familiako lau belaunaldik lan egin zuten ontzigintzan, eta euskal ontziola tradizionalen ezaugarriak gordetzen dituen bakarra da; Kantauriko kostaldean tipología horrekin gelditzen den azkena. 2016an hasitako zaharberritze-zientifikoa 2023an amaitu zen eta, orain, alboko etxearen birgaitze-lanak gauzatzen ari dira. Bisita gidatuan, monumentu-multzoaren zaharberritze-prozesua azalduko da.

ASTILLERO MENDIETA: PROCESO DE RESTAURACIÓN

Visita guiada

Este astillero de estructura de madera construido en 1917, en el que trabajaron cuatro generaciones de la familia Mendieta, es el único que conserva las características de los astilleros tradicionales vascos, el último que queda con esta tipología en la costa cantábrica. La rehabilitación científica iniciada en 2016 finalizó en 2023 y ahora se está llevando a cabo la rehabilitación de la casa contigua. En la visita guiada se explicará el proceso de restauración del conjunto monumental.

LEMOA

ZEMENTUAREN FABRIKAZIOA

Bisita gidatua

Lehen zementuak Antzinako Grezian eta Antzinako Erroman erabiltzen hasi ziren eraikuntzan, gai konglomeratzaile gisa. XIX. mendearen amaieran, hormigoi armatua agertu zenean, zementua eraikuntza berrien egitura guztietan erabili zen. 1917an lanean hasi zen Cementos Lemona SA enpresan, gaur egungo eraikuntzan eta ingeniaritza zibilean ezinbestekoa den material horren fabrikazio-prozesua ezagutuko dugu.

FABRICACIÓN DE CEMENTO

Visita guiada

Los primeros cementos empezaron a utilizarse ya en la Antigua Grecia y en la Antigua Roma, como material conglomerante en la construcción. Y con la aparición del hormigón armado a finales del siglo XIX el cemento pasó a formar parte de las estructuras de las nuevas construcciones. En Cementos Lemona S.A., empresa que inició su actividad en el año 1917, conoceremos el proceso de fabricación de este material, indispensable hoy en día en la edificación y en la ingeniería civil.

	Euskara - gaztelania	Euskera - castellano
	Lemoako zementu-fabrika. Arraibi auzoa 40	Fábrica de Cementos Lemona. Barrio Arraibi, 40
	Urriak 16, osteguna, 11:00etatik 13:00etara	16 de octubre, jueves, de 11:00 a 13:00 h.
Antolatzailea Organización	Cementos Lemona S.A.	
	944872200; lemona@lemona.com	

Irisgarritasuna / Accesibilidad:

Jarduera ez da irisgarria mugikortasun urriko pertsonentzat - No accesible para personas con movilidad reducida

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak. Oin- eta arropa-neurriak eskatuko dira segurtasun-eskakizunak betetzeko arropa emateko helburuz. NANa eskatuko da - Plazas limitadas. Se solicitará talla de pie y de ropa para asignar prendas de acuerdo a las exigencias de seguridad correspondientes. Se solicitará DNI.

LOIU – NATURA HISTORIAREN MUSEOA (ANDRÉS DE URDANETA)

NATURAREN ARKITEKTURA: BIZITZA ERAIKIZ

Bisita gidatua museora

Izaki bizidunen egiturak, bai landareenak, bai animalienak, beren inguruneekin elkarreragiteko diseinatuta daude, dela itsasoaren sakonean, oihan tropikalean edo basamortuan. Organismo baten gorputzaren egitura anatomikoari buruzko informazio ugari ikas daiteke, haren ingurunea aztertuz eta, horrela, etengabe berreboluzionatzen ari den planeta baten arketipo ebolutiboak ulertuz.

Organismo baten egitura guztien oinarri diren piezek osatzen dute egokitzapen ebolutiboen ardatz nagusia.

LA ARQUITECTURA DE LA NATURALEZA: CONSTRUYENDO LA VIDA

Visita guiada al Museo

Las estructuras de los seres vivos, tanto vegetales como animales, también están diseñadas para interactuar con sus entornos, ya sea en las profundidades del mar, en un dosel de la selva tropical o en el desierto. Se puede aprender una gran cantidad de información sobre la estructura anatómica del cuerpo de un organismo, estudiando su entorno y de ese modo comprender los arquetipos evolutivos de un planeta en constante re-evolución.

Las piezas sobre las que se asientan todas las estructuras de un organismo conforman el eje central de sus adaptaciones evolutivas.

	Gaztelania	Castellano
	Urdaneta ikastetxea Lauroeta etorbidea 6	Colegio Urdaneta. C/ Lauroeta Etorbidea, 6
	Urriak 4 eta 18, larunbatak, 10:00etatik 11:30etara	4, y 18 de octubre, sábados, de 10:00 a 11:30 h
Antolatzailea Organización	Andres Urdaneta Museoa - Museo Andrés Urdaneta	
	museo.ciencias@colegiourdaneta.com	

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak - Plazas limitadas

MALLABIA

BASERRIEN ARKITEKTURAREN ALDAERAK

Ibilbide gidatua

Duela 500 urte baino gehiagotik, baserria izan da gizarte berezi bat garatzea eta eratzea ahalbidetu duen elementu arkitektoniko ezin hobea.

Mallabia gune pribilegiatua da ikusi eta gozatzeko zelan etxe honek erakusten digu herri batek, mundua eta bizitza ulertzeko, duen modu bakarra. Baita ezagutu ahal izateko baserri hauek eraikitzen dituen gizarteak jasan zituen aldaketak ere, mendeetan zehar elementu arkitektoniko hauetan islatu zirenak eta gaur arte heldu egin zaizkigunak. Zengotita auzoko baserriak aztertuko ditugu jardunaldi honetan.

VARIANTES DE LA ARQUITECTURA DE LOS CASERÍOS

Itinerario guiado

Desde hace más de 500 años el caserío ha sido el elemento arquitectónico que ha permitido desarrollar y configurar una sociedad única.

Mallabia es un enclave privilegiado donde poder ver y apreciar cómo esta casa, perfectamente adaptada a un entorno, y reflejo de una sociedad, muestra la manera con la cual este pueblo entendió el mundo y la vida, así como las modificaciones que fue sufriendo la sociedad que construyó los caseríos y que se reflejaron en estos elementos arquitectónicos a lo largo de los siglos. Conoceremos los caseríos del barrio de Zengotita en esta jornada.

	Euskara	Euskera
	Zengotita auzoko Done Joanes ermitaren aparkalekuan	En el aparcamiento de la ermita de San Juan de Zengotita
	Urriak 19, goizeko 11:00etatik 12:30era	19 de octubre, domingo, de 11:00 a 12:30 h
Antolatzailea Organización	Mallabiako Udala - Ayuntamiento de Mallabia Gerediaga Elkartea	
	946818066; ejardunaldiak@gmail.com	
	www.ondareabizkaia.eus	

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas

MAÑARIA

	Euskara	Euskera
	Mañariko Plaza	Plaza de Mañaria
	Urriak 12, goizeko, 10:30etatik 12:30era	12 de octubre, domingo, de 10:30 a 12:30 h
Antolatzailea Organización	Mañariko Udala - Gerediaga Elkartea - Ayuntamiento de Mañaria - Gerediaga Elkartea	
	946818066; ejardunaldiak@gmail.com	
	www.ondareabizkaia.eus	

Irisgarritasuna / Accesibilidad:
Ez da irisgarria mugikortasun urriko pertsonentzat
No es accesible para personas con movilidad reducida

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas

HARRI LORATEGIA

Ibilbide gidatua

Angurreta harrobia 1970eko hamarkadan ustiapena bertan behera geratu zen, eta geroxeago artea eta natura lotzen dituen esperientziaz gozatzeko, Angurreta Harrobia Kultur Elkarteak espazioa berreskuratu zuen.

Mañariako harrobietan marmol ustiapenaren jatorria azalduz hasiko dugu, eta ondoren materiala ateratzeko erabilitako teknikak erakutziko ditugu. Gero, Tadanori Yamaguchi artista japoniarrak egindako instalazioaren esanahia eta helburua aztertuko ditugu. Eta azkenik, harrobiaren hainbat txoko eta bertan dauden gainerako instalazio eta eskulturak ikusteko aukera izango dugu.

JARDÍN DE PIEDRA

Itinerario guiado

La cantera de Angurreta dejó de explotarse en la década de los años setenta y la asociación Angurreta Harrobia Kultur Elkartea ha recuperado el espacio, para poder disfrutar de una experiencia única que vincula arte y naturaleza.

Comenzaremos la visita contextualizando los orígenes de la explotación de mármol de las canteras de Mañaria y después se procederá a explicar las técnicas utilizadas para la extracción del material. A continuación se visitará y explicará el significado y objetivo de la instalación del artista japonés Tadanori Yamaguchi y por último se visitarán los distintos rincones de la cantera y el resto de instalaciones.

MAÑARIA - HONTZA MUSEOA

	Euskara - gaztelania	Euskera - castellano
	Hontza Museoa. Ebaristo Bustintza Kirikiño 18	Hontza Museoa. Calle Ebaristo Bustinza kirikiño, 18
	Urriak 18, larunbata, 11:00etatik 12:30era (gaztelaniaz); 12:00etatik 13:30era (euskaraz)	18 de octubre, sábado, de 11:00 a 12:30 h (castellano); de 12:00 a 13:30 h (euskera)
Antolatzailea Organización	Hontza Museoa	
	946216555; info@hontzamuseoa.eus	

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak - Plazas limitadas

"KIRIKIÑO"TIK KIRIKIÑORA

Bisita gidatua

Bisita gidatuaren ardatz nagusia eraikina bera izango da. Izan ere, Kirikiño ezizena zeukan Ebaristo Bustintzaren egoitza izan zen, eta gaur egun "Hontza Natur Zientzien Museoa" dago bertan. Horregatik, bisitaren hasieran, eraikinaren izaera eta bilakaera historikoa jorratuko dira, denboran zehar izan dituen erabilera-aldaketak nabarmenduz.

Eraikinari buruzko informazio zehatza eman ondoren, bisitariek museoaren edukiak ezagutzeko aukera izango dute, eta, une horretatik aurrera, ohiko bisita egingo da, ohiko ibilbideari jarraituz.

DE "KIRIKIÑO" A ERIZO

Visita guiada

El eje principal de la visita guiada será el propio edificio. Se trata, en efecto, de la que fuera residencia de Ebaristo Bustintza, conocido como "Kirikiño", y que en la actualidad alberga el Museo de Ciencias Naturales "Hontza Museoa". Por ello, al inicio de la visita se abordará la naturaleza del edificio y su evolución histórica, destacando los cambios de uso que ha experimentado a lo largo del tiempo.

Una vez ofrecida la información detallada sobre el edificio, los visitantes tendrán la oportunidad de recorrer los contenidos del museo, y a partir de ese momento la visita continuará con normalidad según el recorrido habitual.

MARKINA-XEMEIN

	Euskara	Euskera
	Udalbatza-aretoan	Salón de plenos del Ayuntamiento
	Urriak 31, ostirala, 19:00etatik 20:30era	31 de octubre, viernes, de 19:00 a 20:30 h
Antolatzailea Organización	Uhagon kulturgunea	
	640290964; kulturgunea@uhagon.com	

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak - Plazas limitadas

"UN DÍA, CON POCO EQUIPAJE, UN SUIZO A MARQUINA HIZO EL VIAJE": ALFREDO BAESCHLIN GUREAN. 1921/VII/02

Hitzaldia

Alfredo Baeschlin (1883-1964) arkitekto, margolari eta poeta suitzarra izan zen, eta gure lurraldean gogoratzen da landa-arkitekturari buruz egindako ikerketengatik.

Baeschlinek 1921ean Juan José Mugárteguiri eskainitako komiki argitarabagearen argitan herriko arkitekturea suitzar arkiteko ondo entzun baten begitik ikusiko dogu.

"UN DÍA, CON POCO EQUIPAJE, UN SUIZO A MARQUINA HIZO EL VIAJE": ALFREDO BAESCHLIN EN NUESTRA CASA. 1921/VII/02

Conferencia

Alfredo Baeschlin (1883-1964) fue un arquitecto, pintor y poeta suizo al que se recuerda en nuestro territorio por sus investigaciones sobre la arquitectura rural.

A la luz del cómic más ilustrativo dedicado por Baeschlin a Juan José Mugártegui en 1921, conoceremos la arquitectura local a través de la mirada de este popular arquitecto.

MARKINA-XEMEIN

	Gaztelania	Castellano
	Markina-Xemeingo Udala. Goikoportala 3	Ayuntamiento de Markina-Xemein. Goikoportala 3
	Urriak 13 eta 27, astelehena, 18:00etatik 19:00etara	13, 27 de octubre, lunes, de 18:00 a 19:00 h
Antolatzailea Organización	Markina-Xemeingo Udala - Ayuntamiento de Markina-Xemein Ondare Basesa, SL	
	ondarebabesa@ondarebabesa.com	

Oharrak-gomendioak / Observaciones-recomendaciones:
Plaza mugatuak - Plazas limitadas

HIRI ARKITEKTURA ETA ARKEOLOGIA MARKINA-XEMEINGO HIRIGUNE HISTORIKOAN

Bisita gidatua

